


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,5 gehitu ziren 2018ko uztailean aurreko hilaren aldean

2017ko uztailaren aldean %3,0 gehitu ziren

2018ko uztailean, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,5 gehitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %3,0 igo zen, EUSTATEN datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Lan-eskuaren kostuan ez da aldaketarik izan aurreko hilaren aldean (%0,0), eta lehengaien kostua %0,6 igo da.

Lehengaien barnean, Etxegintza %0,6 gehitu da lehengaien kostuan, eta Obra Zibila %0,7. Urte artean, bi azpisektore horiek zeinu bera dute erakusten, baina intentsitate diferentearekin, zeren Etxegintzan lehengaien kostuak %3,1 gehitu baitira, eta Obra Zibilean %5,7.

Sektoreak kontsumitutako lehengaietan urte artean (2018ko uztaila 2017koaren aldean) prezio hazkunderik handienak hauek eduki dituzte: *Petrolio-fintzea*, %24,0ekin; *Metalurgia*, %9,3ekin; *Mineral ez-metalezkoak* eta *Industria kimikoa*, %4,7ekin kasu

bietan. Aldiz, lehengaien prezioan jaitsi da azken hamabi hilabeteetan *Kautxu eta plastikoaren* sektorea, %0,1eko jaitsierarekin.

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2018ko Uztaila

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	104,7	0,5	3,0	2,3
Eraikinak	104,6	0,5	2,8	2,2
Obra zibila	105,3	0,5	4,7	3,1
LEHENGAI	103,3	0,6	3,4	2,5
Eraikinak	103,2	0,6	3,1	2,3
Obra zibila	103,9	0,7	5,7	3,5
LAN-ESKUA	109,8	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62